

Santurtzin, 2018ko abenduaren 4an

Olentzero maitea:

Aurten ere hemen naukazu zuri gutuna idazten; aurten ere nire gutuna daukazu. Badakit urtero milaka gutun jasotzen duzula eta hauek irakurtzeak eta eskatzen diren gauzak lortzeak lan, denbora eta ahalegin handia dakartzatela. Beraz, hau horrela izanik, aldeztu aurretik arreta eta pazientzia eskertu nahi nizkizuke.

Azken boladan telebista piztu, aldizkaria irakurri edota irratia entzun baduzu, seguruenik, egunero hainbat eraso sexista gertatzen direla ohartu zara. Horrela ez bada, pasaden egunean irakurritako albiste baten datuak kontatuko dizkizut: 4 emakumetatik, batek eraso sexistak jaso ditu inoiz Espainian.

Aurten nire lagunari egokitu zaio. Hau nazka! Zer ote da hurrengoa? Ez, ez da hurrengorik egon behar. Ez da bakarrik telebistan eta hemendik kanpo gertatzen diren kontuak, pentsatzen duguna baino hurbilago jasotzen dira halako gertaerak, eta zoritzarrez orain dela hilabete batzuk nire lagunari gertatu zaio.

Hurbiletik ikusi arte ez zara ohartzen zenbat gauza aldatzen dituen. Ez du biktimak soilik sufritzen, gurasoek, senideek, irakasleek, lagunek eta inguruko guztiek ere bai.

Guztiz aldatu da bai nire laguna, bai bere bizitza. Gertakizun honek hainbat ondorio ekarri ditu, besteak beste: kalera ateratzean. Ez da berdina nahiz eta guztiok saiatu normaltasunez

jokatzen, gurekin dagoenean lasai eta beldurrik gabe sentitzeko ahaleginak egiten ditugu baina batzuetan saihestezina da, oso erne egon behar gara edozein momentutan txarto sentitzen bada edota bat-batean umorez aldatzen badu laguntza eskaintzeko... Hauek kanpotik ikusten ditugun aldaketak baino ez dira, beraz, ez dut imajinatu nahi bere buruan zer dabilkion.

Zenbat eta nagusiagoa naizen orduan eta gehiago konturatzen naiz zenbat gauza garrantzitsu dauden gizarte honetan aldatzeko, baina kontatu dizudanak hurbiletik bizi izatea errealitateaz kontzienteagoa izatea eragin dit.

Hau guztia esanda, Olentzero maitea, ez dizut eskatzen oparirik ezta miraririk ere eta badakit eskatuko dizudana ahalegin oso handia dela baina beharrezkoa ere bai. Jende guztia, batez ere erasotzaile diren pertsona hauek, kontzientzia eta haien pentsatzeko modua aldatzea, emakumeek gizartean behin eta berriz eskatzen duten berdintasun hori lortzea, egunero entzuten diren erasoak behin betikoz amaitzea eta gizabanako bakoitza kaletik aske eta beldurrik gabe ibili ahal izatea eskatuko dizut.

Benetan aldaketa hau beharrezkoa dela uste dut, beraz, zure erantzunaren zain egongo naiz, mila esker eta gabon zoriontsuak izatea eta inolako eraso sexistarik gabeko egunak espero dut.

Mila musu, lagun hori